

# BESTELAKO XEDAPENAK

## LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIO SAILA

### 5154

*EBAZPENA, 2022ko azaroaren 18koa, Garraio Azpiegituren zuzendariarena, «Erandioko tren kotxetegiaren oinarrizko proiektuak» ukitutako ondasun eta eskubideen zerrenda onartzen duena, eta titularrei dei egiten diena okupazioaren aurreko aktak egiteko.*

ETSk kudeatutako lineen instalazio osagarri gisa, ezinbestekoa da, ustiapenari dagokionez, estrategikoki banatutako gordelekuak edukitzea, linean zirkulatuko duen material mugikorra gordetzeko eta mantentzeko. Funtzionamendu- eta eraginkortasun-arrazoiengatik, gordelekuak trazaduraren inguruan jarri behar dira, ahalik eta ustiapen arrazionalena ahalbidetzen duten lekuetan.

2022ko urriaren 14ko Ebazpenaren bidez, «Erandioko tren kotxetegiaren oinarrizko proiektua» onetsi zen.

«Erandioko tren kotxetegiaren oinarrizko proiektuaren» helburua da ETS-RFVren gordelekuen eta haien trenbide-zabaltzaren ezarpen berria aztertzea eta definitzea, egungo Lutxana-Sondika linean, Arriagasko tunelaren hegoaldeko ahoaren ondoan, Txorierrin (Erandoio, Bizkaia). Era berean, horiek ahalik eta ondoen ustiatzeko eta erabiltzeko behar diren instalazioak definitu eta baloratzeko dira.

Lursailak lortzeko eta ukitutako ondasun eta eskubideak kudeatzeko, proiektuak ondasun eta eskubide horien identifikazioa biltzen du. Horretarako, desjabetzeen eranskinean ageri dira lurzatiaren zerrenda eta planoak.

Garraio Azpiegituren zuzendariaren 2022ko urriaren 17ko Ebazpenaren bidez, proiektua gauzatzeko beharrezkoak diren ondasun eta eskubideak nahitaez desjabetzeko prozedurari hasiera ematea eta desjabetzeen eranskinaren zerrenda jendaurrean jartzea erabaki zen. Interesdunei jakinarazi zitzaion eta 2022ko urriaren 24an Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta «El Correo» eta «Deia» egunkarietan argitaratu zen. Ondasun eta eskubideen zerrenda hori Erandioko udaletxeko iragarki-taulan ere jarri zen.

Izapide honetan bost alegazio-idazki aurkeztu dira; Zerbitzu Teknikoetara bidali dira, neurriak hartzeko eta kontuan hartzeko akatsak zuzendu behar badira. Erantzun individualizatua bidali zaie.

Jendaurrean jartzeko epea amaituta, ukitutako ondasun eta eskubideen behin betiko zerrenda egin da.

Organo honek eskumena du garraio-azpiegituren arloko jarduerak gauzatzeko beharrezkoak diren desjabetze-espeditenteak izapidetzeko, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 19ko 11/2021 Dekretuaren 16.2.c) artikulua xedatzen duenaren arabera.

Trenbide Sektoreari buruzko irailaren 29ko 38/2015 Legearen 6.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, trenbide-lineen proiektuak, horien tartekak edo trenbide-azpiegiturako beste elementu batzuk onesteak edo lehendik daudenak aldatzeko, lursail berriak erabiltzea eskatzen badu, horietan identifikatutako eragindako ondasun eta eskubideen Nahitaezko Desjabetzearen ondo-rioretarako, onura publikoko edo gizarte-intereseko deklarazioa egingo da, eta okupatu beharreko eta presakoa dela deklaratu da. Legezko adierazpen horrek nahitaezko desjabetzeari buruzko 1954ko abenduaren 16ko Legearen 52. artikuluan aurreikusitako prozedurara jotzeko ahalmena ematen dio administrazioari, lurra okupatuz edo ukitutako ondasunak eskuratuz, ondasun edo

2022ko azaroaren 25a, ostirala

eskubide horiek deskribatzen dituzten atalak egin ondoren, titularrak identifikatuz eta balorazio-rako beharrezkoak diren datuak jasoz, eta, aldez aurretik, okupazioaren aurreko gordailu gisa perituak zehaztutako zenbatekoa ordainduz edo kontsignatuz, eta, hala badagokio, okupatzeko presak eragindako kalteen zenbatekoa ordainduz edo kontsignatuz.

Ondorioz, egindakoa ikusita, eta Nahitaezko Desjabetzeari buruzko 1954ko abenduaren 16ko Legearen 20., 21. eta 52. artikuluetan eta Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen Erregelamendua onartzen duen 1957ko apirilaren 26ko Dekretuaren 56. artikuluan eta horrekin bat datozen eta oro har aplikatu beharreko gainerako xedapenetan xedatutakoarekin bat etorriz, honako hau,

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– «Erandioko tren kotxetegiaren oinarritzko proiektuak» ukitutako ondasun eta eskubideen zerrenda onartzea, eta hura okupatu beharra deklaratzeko, Trenbide Sektorari buruzko irailaren 29ko 38/2015 Legearen 6.2 artikuluan adierazitako ondorioekin.

Bigarrena.– Zerrenda horretan agertzen diren jabeen egitea, Erandioko Udalera joan ondoren, ukitutako ondasun eta eskubideak okupatu aurreko aktak egiteko bertan adierazitako egun eta orduetan eta, hala badagokio, horiek formalki okupatzeko; hala ere, beharrezkoa izanez gero, aukera egongo da lursailera bertaratzeko, interesdunek hala eskatuta.

Egintza horretara interesdunek joan beharko dute, edo haien izenean jarduteko behar bezalako baimena jaso duten ordezkoei; haien titulartasuna egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko dituzte (eskritura publikoak, Jabetza Erregistroko ziurtagiriak edo informazio-oharrak, etab.), bai eta beren eskubideak egiaztatzen dituen beste edozein agiri ere. Egoki iritziz gero, beren perituekin eta notario batekin batera aurkeztu ahal izango dira, baina hori haien konturakoa izango da.

Era berean, eta Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen Erregelamendua onartzen duen 1957ko apirilaren 26ko Dekretuaren 56.2 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, interesdunek alegazioak aurkez ahal izango dituzte okupazioaren aurreko akta egiten den egunera arte, akatsik egonez gero horiek zuzentzeko. Horretarako, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saileko Garraio Azpiegituren Zuzendaritzara jo beharko dute idatziz (Donostia kalea 1, Lakua 1, 01010 Vitoria-Gasteiz).

Ebazpen hau ez da behin betikoa administrazio-bidean, eta, beronen aurka, interesdunek gora jotzeko errekurtsioa aurkez diezaioke Azpiegitura eta Garraioetako sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Errekurtsioa jartzeko idazkia organo honi edo Azpiegitura eta Garraioetako sailburuordeari zuzendu behar zaio.

Administrazio publikoek administrazioarekiko auzi-errekurtsioa jarri ahal izango dute bi (2) hilabete epean Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan. Nolanahi ere, aurretik aukera izango dute errekerimendua egiteko, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 44. artikuluan zehaztutako moduan eta epean.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko azaroaren 18a.

Garraio Azpiegituren zuzendaria,  
MARÍA DOLORES DE JUAN DE MIGUEL.

2022ko azaroaren 25a, ostirala

## ERANSKINA

Finka zk.	Katastroko erref. eta udalerrria	Jabea	Eragin mota (m <sup>2</sup> )			Deialdia Erandioko Udala 2022-12-13
			Erabateko desjabetzea	Zortasun iraunkorra	Aldi-baterako okupazioa	
001	1039 01001 Erandio	Erandioko udala	610	-	-	13:15
002	1039 01002 Erandio	Ángel Muñoz Delica María Adelaida Sustacha Gorostiaga Pedro María Sustacha Sauto M. <sup>a</sup> Teresa Sustacha Sauto Jose Ramón Alberto Sustacha Gorostiaga María Rosa Landaluce Sustacha María Dolores Eloisa Landaluce Sustacharen jaraunsleak Eloisa Sustacha Solano Juan Manuel Sustacha Solano	738	-	5	09:00
003	1039 01003 Erandio	Jose María Arieta-Araunabeña Bustinza Itziar Arieta-Araunabeña Bustinza Joseba Mikel Arieta-Araunabeña Bustinza María Begoña Arieta-Araunabeña Bustinza	651	-	-	09:25
004	1039 01004 Erandio	Rosa María Iturregui Aurrecochea Nicolas González de Durana Uruchurtu Jose González Durana Aguirre Luronpe SL	595	-	5	09:50
005	1039 01005 Erandio	Joseba Peña Murgia M. <sup>a</sup> Elisa Peña Murgia María Amaya Madariaga González Ana María Madariaga Bilbao Jesus María Barrenechea Echevarria María Victoria posada Camiruaga Alazne Madariaga Sasieta Imanol Madariaga Sasieta María del Coro Madariaga Elicegui María Arantzazu Madariaga Elicegui Jose Alberto Asla Madariaga María Rosa Asla Madariaga Petra Galdos Camiruagaren jaraunsleak Vicenta Galdos Camiruagaren jaraunsleak Estibaliz Plaza Mentxaka Ramón Mentxaka Ugalde Bakarne Mentxaka Ugalde Narciso Galdos Camiruagaren jaraunsleak Berta Madariaga Galarza María Jesús Madariaga Galarza Jose Luis Madariaga Galarza Jone Madariaga Sieira Jose Luis Molinuevo Barrenechea Victor Molinuevo Cuartango Iñigo Molinuevo Cuartango José María Posada Gil Ana María Posada Gil Pedro Maria Posada Gil Maria Carmen Posada Gil María Mar Lourdes Galdós Weible Iñigo Galdós Weible Yolanda Molinuevo Gallo Fernando Molinuevo Gallo Libe Ezenarro Asla Keltse Ezenarro Asla Lierni Ezenarro Asla	1.291	-	5	12:30
006	1039 01006 Erandio	Promociones Zorroza SL	826	-	-	10:15
007	1039 01007 Erandio	Jose Luis Zubiaur Díez Luis Miguel Zubiaur Díez	781	-	-	10:40

2022ko azaroaren 25a, ostirala

Finka zk.	Katastroko erref. eta udalerrria	Jabea	Eragin mota (m <sup>2</sup> )			Deialdia Erandioko Udala 2022-12-13
			Erabateko desjabetzea	Zortasun iraunkorra	Aldi-baterako okupazioa	
008	1039 01008 Erandio	Sprilur SA	808	-	-	11:00
009	1039 01009 Erandio	Iñaki Vidaurrezaga Oar	601	-	-	11:25
010	1039 01010 Erandio	Pedro Maria Arrizabalaga Camiruaga Javier Arrizabalaga Camiruaga	513	-	1	11:45
011	1039 01011 Erandio	Dyrmarlan SL	7.711	-	1.700	12:05
012	1129 07001 Erandio	Sprilur SA	1.017	-	23	11:00
013	1039 03001 Erandio	Erandioko udala	761	-	693	13:15
014	1039 02003 Erandio	Sprilur SA	-	-	6	11:00
015	1039 02004 Erandio	Sprilur SA	-	-	123	11:00
016	1129 07002 Erandio	Bizkaiko Foru Aldundia Ogasuna eta Finantzak Saila Ondare Zerbitzua	397	-	-	13:00
017	0013 00194 Erandio	Bizkaiko Foru Aldundia Ogasuna eta Finantzak Saila Ondare Zerbitzua	49	-	-	13:00